

Sagardoaren iragana eta etorkizuna bildu dute "Sagardogile" liburuan

📅 Urr 20, 2018 🌐 Ekitaldiak, Museoak, Sagardotegiak 💬 0 comments



Sagardoaren iragana eta etorkizuna biltzen duen "Sagardogile" liburua aurkeztu dute Joxemi Saizar eta Joseba Urretabizkaiak gaur Sagardoetxea Museoan, Astigarragan.

Gipuzkoako **19 sagardogileren testigantzak** bildu dituzte Saizar eta Urretabizkaiak "Sagardogile" liburuan, lurraldeko sagardo ekoizpenaren "atzean dagoen mundua" gizarteratu nahian, sagardogileen esperientziatik abiatu eta gaur egungo ikerketetaraino, iragana eta etorkizuna lotuz:

- Juan Jose Aburuza Otegi (Aburuza sagardotegia)
- Juan Goikoetxea Alzueta Larburu (Alzueta sagardotegia)
- Jose Gregorio Begiristain (Begiristain sagardotegia)
- Jose Miguel Bereziartua Lizaso (Bereziartua sagardotegia)
- Jose Cruz Calonge Lizarazu (Calonge sagardotegia)
- Rufino Cipitria Ormazabal (Eguzkitza sagardotegia)
- Juan Bautista Goikoetxea Izagirre (Elorrabi sagardotegia)
- Felix Garmendia Auzmendi (Etxe zuri sagardotegia)
- Isidro Iguaran Elustondo (Eula sagardotegia)
- Jose Goñi Urreaga (Gurutzeta sagardotegia)
- Juan Ignacio Astiazaran Lasa (Iruin Astiazaran sagardotegia)
- Jose Mari Lasa Artola (Isastegi sagardotegia)



- Asentxio Intxauspe Aranburu (Itxas-buru sagardotegia)
- Sebastian Zabalegi Aristimuño (Oiarbide sagardotegia)
- Jose Antonio Iparragirre Mendaraz (Otatza sagardotegia)
- Joaquin Otaño Goikoetxea (Petritegi sagardotegia)
- Rosario Arruti Irigoien (Txindurri iturri sagardotegia)
- Miguel Zapiain Goñi (Zapiain sagardotegia)
- Jose Antonio Gincerain Zampirain (Zelaia sagardotegia)

Sagardo ekoizleek historikoki egin duten lana aitortzea da liburuaren helburua.

Transmisiorako tresna ere izan nahi du, gaur egungo eta etorkizuneko sagardogileei zuzenduta bildu baititu testigantzak. Elkarrizketatu guztiak 65 urtetik gorakoak dira; emakume bat eta 18 gizon. Saizarren testuak Joseba Urretabizkaiaren argazkiekin eta diseinuekin osatu dituzte.

Tradizionalki egin den lana, aurrerapen teknologikoarekin eta azterketa zientifikoekin eskutik emanda doa gaur egun, eta horri ere egin diote keinu bat liburuan. Urte askoan ekoizle izan direnen bizipenak eta esperientziak, gaur egungo egoerarekin uztartu ditu egileak, eta elkarrizketatuek egungo tekniken eta azterketa zientifikoaren inguruan duten ikuspegia ere bildu dute.

Xibarit argitaletxeak ekoiztu du liburua eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dute. Hasierako tiradan 500 ale argitaratu dituzte, eta testigantzak ez ezik, irudiak eta argitalpena ere asko zaindu dira.

Liburua liburu dendetan, sagardotegietan eta Sagardoetxea Museoan jarriko da salgai.

"Sagardogile" Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearekin, Sagardo Mahaiarekin eta Fraisoroko Eskolarekin elkarlanean egin da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu du bere argitalpenean.

Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

[Agenda](#)

[Argitalpenak](#)

[Azokak](#)

[Berriak](#)

[Ekitaldiak](#)

[Erakusketak](#)



Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea

ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**

el territorio de la vida

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Privacidad - Condiciones

Beste proposamenak hemendik gertu

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

Nola iritsi eta sarbideak

Nola mugitu

Tarifak eta ordutegiak

Non lo egin

Bisita erreserbatu

Gidak eta informazio praktikoa

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

[SAGARDO FORUM](#)

[AGENDA](#)

[BLOGA](#)

[HEDAPENA](#)

[Informazio orokorra](#)

[Boletina](#)

[Argazkiak](#)

[Buletinera harpidetza](#)

[Hitzaldiak](#)

[Sare sozialak](#)



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)

[PROIEKTUAK](#)

[AKORDIOAK](#)

[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)

